

DOMUND 2024

“Zoazte eta gonbidatu guztiak jai otordura”



2024KO URRIAREN 20
20 DE OCTUBRE DE 2024

DOMUND

*Zoazte eta gonbidatu guztiak
jai-otordura*

*Id e invitad a todos
al banquete*

 #DOMUND
COLABORA EN WWW.DOMUND.ES

 Domund
Aita Santuaren Misio Ekintzak
Obras Misionales Pontificias

DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – 2º 48005 BILBAO - Tlf. 94 401 36 99

E-mail misiobi@bizkeliza.org

“Zoazte eta gonbidatu guztiak jai otordura”

Adiskideok,

Beste urte batez, DOMUND eguneko kanpaina ospatuko dugu kurtsoaren hasieran. Kanpaina hau deia da, kristau guztiok arduradun senti gaitzen Eleizaren jarduera ebanjelizatzailean. Aukera ederra da misio-eginkizuna misiolarien lekukotasunen, beren-beregi prestatutako lagungarrien bidez, gure kristau elkarteetan nahiz ikastetxeetan agertzeraz emateko. Aipatutako misio-egiteko horretarako ezinbesteko diren otoitz eta ditu-laguntzaren bidez ere esku-har dezakegu.

Frantzisko Aita Santuak eztei-bazkariaren parabola ebanjelikoan (Mt 22, 14) oinarritutako goiburua aukeratu du Misioen Munduko Egun honetarako: **“Zoazte eta gonbidatu guztiak jai otordura”**.

“Zoazte eta gonbidatu”. Misioa, hau da, nekaezin joan eta deitu guztioi dagokigun egitekoan parte hartzeraz, bizigiro guztietan ebanjelioaren lekukotasuna emanez.

“Guztiak”. Guztientzat da deia; guztioi dagokigu Berri Ona, batik bat gizarteko azken eta baztertuei, erregearen gonbidatu bereziei, iragartzera ateratzea. “Ez ezer inposatzeko, poztasuna zabaltzeko, zerumuga ederra eta otordu ederra eskaintzeko baizik”.

“Otordura”. Jainkoak jai prestatzen dihardu bere seme eta alaba guztientzat, guztiok mahai beraren inguruan bere ondoan eserita ikusi nahi gaituelako, betirako bizi oparoaz goza dezagun.

Aurreko urteetan bezala, kanpainarako lagungarriak bidaliko dizkizuegu: kartelak, triptikoak, otoitzak... Beste hainbat lagungarri duzue eskuragarri Aita Santuaren Misio-egintzen eta misioen web orrialdeetan: www.omp.es eta www.misioak.org

Udaldi honetan bizi izandako lekukotasunaren berri emango duten gazteak joango dira ikastetxe eta taldeetara.

Gogoeta eta ekintzarako egun honetaz baliatuz, bultza ezazue misio-alderdia, gure elkarte eta taldeetan misio-bokazio berriak susta ditzagun elkarrekin.

Eskerrik asko gure Elizbarrutiaren misio-sustapenean esku-hartzeagatik!

Feli Martín

Misinoetarako Ordezkarria

“Zoazte eta gonbidatu guztiak jai otordura”

Anai-arreba maiteok:

Gure lekuko Eleizaren 75 urteak ospatzean, Jainkoak gure ohikerietatik harago begiratzeko egiten deuskun deia entzun dogu. Domund Egunaren 2024ko ekitaldi honetan, “Zoaze eta deitu ezteguetara guztiak” (Mt 22, 9) goiburuak eraginda, ezinbesteko dogu maitasun eta zuzentasunaren egarri dan mundu honetan itxaropenaren misiolari izateko erronkari aurre egitea.

Misinoa, aukera ez ezik, fede bizi eta benetakoaren premina, adierazpen dala gogoratu deusku Aita Santuak. Ebanjelizazioa Jainkoaren egitekoa da, baina baita bere errukia agertzeko deia be. Bere lankide izan gura ete dogu?

Domund Egunak dei egiten deusku Eleizaren egitekoaz arduratu gaitez. Misiolariei otoitz eginez eta dirua emonez laguntzeaz gainera, Barri Onaren lekuko bizi izan gaitekez gure eguneroko bizitzan. Topaldi bakotxa, jentea Jaunaren banketera deitzeko aukera izan daiteke.

Irudikatu daigun Jainkoak prestatutako mahaia, non guztiek, inor kanpoan edo bazterrean itzi barik, lekua daben. Jainkotiar irudipen hau geure eginkizun bihurtzen da pertsona bakotxak maitasun eta alkartasunezko jai horretan parte hartzeko deia jaso daian arte. Zalantza barik, badago nahikoa eginkizun.

Ebanjelioak poztasun beteko otordura deitzen dau, deitutako bakotxari abegi egiten jakolako eta guztien duintasunaren alde egiten dalako. Kristo azkenez arduratzen da eta leku berezia ziurtatzen deutse. Dei horren barri-eroale izatea dagokigu.

Gure eginkizun unibertsal honek konpromiso iraunkorra eskatzen dau. Kontua ez da beste betebeharr bat ezartzea, poztasuna banatzea, zerumuga baliotsua erakustea, otordu irrikagarria eskaintzea baino. Fededun bakotxak betebeharr bat dau bere inguruan.

Anai-arrebok, ez gaitez gixienagaz konformatu. Zabaldu daiguzan gure bihotz eta eskuak; eskuzabaltasun eta ausardiaz erantzun daigun. Egin daigun otoitz gure misino-bokazinoengaitik eta izan gaitez Jainkoaren maitasunaren lekuko ausart.

Gure erantzuna “bai” ausart eta alaia izan daitela, gure bizitza eta gure ingurukoena barritzeko gauza dan baietza. Apaindu gaitez “jaiegunetako jantziak”, Jainkoak bere agintzariak sinistu dabezan guztientzat prestatu dauan otordurako prest.

Bihotzez bedeinkatzen zaituet.

✠ Joseba Segura Etxezarraga
Bilboko Gotzaina

Sarrerako oharra

Gaur, DOMUND Eguna ospatzen dihardugu. Frantzisko Aita Santuak, "abian" izateko dinosku aurtengo mezuan, hau da, "bidekurutzeetara joan gaitezala eta aurkiten doguzan guztiak deitu daiguzala". Horixe da Eukaristiaren xedea: deitu, bultzatu, **Jesusengandik**, Aitaren Misiolariarengandik, **jaso doguna bidezkoa proposatu**".

Homiliarako oharra

"Zoaze eta deitu". Misinoa, hau da, nekaezin joan eta deitu Jaunaren jaian parte hartzea.

Deia kristau guztiontzat, bizigiro guztietan lekukotasun ebanjelikoa emonez Jainkoaren herri osoari dagokion egitekoan parte hartu daigun. Doakotasun, eskuzabaltasun eta unibertsaltasunetik egindako deia da. Danoi emon jaku haren dei eta gonbiteari erantzuteko aukera.

"Barri Ona izaki guztiei eroateko egitekoak iragarten dan Haren estilo bera izan behar dau nahitaez... Beti gertutasun, erruki eta samurtasunez, hau da, Jainkoaren izaera eta jokaera agertzen daben alderdiak sustatuz".

"Otordura"

Kontaktaren arabera, Jainkoak jaia prestatzen dihardu bere seme eta alaba guztiontzat, guztiok mahai beraren inguruan bere ondoan eserita ikusi nahi gaitualako, betirako bizi oparoaz gozatu daigun.

Jainkoaren deialdi handia zabaltzen emoten dau Jesusek bere bidez osoa: «Otordua prest da, zatoze!». Mezu honek itxuratzen dau Jainkoa iragarteko dauan era. Deitu eta gonbidatu egiten dau. *"Barri Ona, otordurako deia da eta mahai horren inguruan, nagusi dira Jainkoagazko eta besteakazko alkartasuna, poztasuna, banatzea, zuzentasuna eta senidetasuna"*.

Otordurako dei hau, berez, Jaunak bere Hitzaz, Gorputzaz eta Odolaz janaritzen gaituan Eukaristia-mahairako deiari lotuta dago.

"Guztiok". Kristoren ikasleen eta sinodo-seneko eta misiolari dan Eleizaren egiteko unibertsala.

Gauza bat ez ahazteko dinosku Aita Santuak: gure misino-jardueretan, Barri Ona danei iragartera bialduak garala, eta "ez betebeharrak bat ezartzen den eran, poztasun bat partekatzen, helburu eder bat adierazten edo otordu desiragarri bat eskaintzen den eran baizik". **(EG14)**

Gizarteko azkenak eta baztertuak dira erregearen gonbidatu bereziak. Otordua guztiontzat eta betirako zabalik irauten dau, gutako bakotxari deuskun maitasuna handi eta baldintza bakoa da-eta. Gutako bakotxa da Jainkoak bere grazia eraldatzaile eta salbatzailearen jasotzaile izateko egiten deuskun deiaren hartzaile. Gure aldetik, gauza bat baino ez da behar: 'BAI' esatea, jainkozko eta doako doea hartzeko, Berak lez "jaieguneko jantzia" jantziz, Bera onartuz eta Berari gu eraldatzen itziz (Mt 22,12)

Jainkoaren herriaren otoitza

Mundu osoko Eleizaren sinodo-seneko ibilbide honetan, ezinbestekoa da guztion konpromisoa. Aurkeztu deioguzan Jaunari gure preminak, semeak aitarengan jarten dauan lez, Berarengan gure uste osoa jarritz:

- Kristo lez, misiolari dan Eleizaren alde; alkarrizketarako eremuak sortuz, alkarregaz bide eginez, Berbiztuak dakarskun bakearen zerbitzari lez aurkeztu daiten gure munduko gizon eta emakumeen aurrean. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Frantzisko Aita Santuaren, gotzainen, abadeen eta mundu osoko Eleizako pastoralgintzako arduradunen alde; Jaunaren ereduari jarraituz, zerbitzari izateko prestasuna izan daigun eta inguruko sufrimentuak geure egin daiguzan. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Misiolarien alde; Maria Eleizako lehenengo misiolariaren antzera, berandu baino lehen entzun daiguzan behartsuen preminak eta erantzun deiogun Jesusen deiari eta misino-bokazino gehiago eskatu daigun. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Jesus ezagutzen ez dabenen alde; misino-egitekoa barritu eta Jaunaren Eleiza lez danak deitu daiguzan otordura, Jainkoak gutako bakotxari egiten deuskun oparira, "ez eizu galdu, ez zaitetz kanpoan geratu!" esanez. *Eskatu deiogun Jaunari.*

Aita, entzun zuregana jo daben seme-alabei eta emoiguzu gure esku itzitako egiteko ebanjelizatzailea aurrera erroteko indarra. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Eskaintza

Zure Gorputz bihurtuko dan **ogi** hau gure janari bihurtu daitela, Jauna, zeure izenean lurreko azken muturreraino joan gaitez. Herrien ebanjelizatzearen zerbitzura jarteko maitasun bihurtuko dan **ardoa** dakargu, Jauna. Jesus, axolagabekeria edo aurkakotasun guztiak gaindituta, Erreinuaren zoriona guztiei eroan behar deutsegula gogoratzen deusku **kanpaina** honek.

Oharra dirua batu aurretik

Gaur ospatzen dihardugun DOMUND eguna, mundu osoan ospatzen da: leku guztietan aurkeztu eta dirua batzeko eskatzen da. Batzuk gehiago emon leikie, gitxiago besteek, baina batera jarrea danok egin geinke. Gure ekarpenari esker, Barri Ona mundu osoan zabalduko da. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

Agurra

DOMUND eguneko Eukaristian parte hartzeak gure kristau izatea misino-ikuspuntutik bizitzera garoaz. Sentitu gaitez misiolari, gaur batez be, berbiztuaren lekuko izanik Barri Ona bizi bihurtzen diharduen gizon eta emakumeak bat eginez.

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA – OMP

Urtean zehar, misinoakaz lankidetzan jarduteko hainbat bide dago. Aita Santuak, bere aldetik, adiera hau emon gura deutse Domund eguneko munduko kolekta guztiei: Misinoko lurralde guztiei eusteko izan daitezala, katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren zeinu lez.

Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzek, OMP deitzen diranek, laguntzen banaketa zuzena bermatzen dabe, munduko Eleiza guztiek gutxieneko laguntasuna jaso daien

Gehiago jakiteko, 2023ko oroitza-txostenera jo [esteka](http://www.omp.es) www.omp.es

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik esker ona adierazo gura deusuegu urtean zehar Aita Santuaren ardurapeko Egintzen alde egiten dozuen guztiagaitik.

Kontu zenbakiak adierazten dizkizuegu **Aita Santuaren Misio Ekintzetako** dohainak sartu ahal izateko.

KUTXABANK-BBK _____ **ES52 2095 0000 76 2000027102**

LABORAL KUTXA _____ **ES22 3035 0019 90 0190009418**

BBVA _____ **ES89 0182 1300 11 0014915565**

OHARRA: dohaintzak ze parrokia, alkarte erlijioso, ikastetxerenak... diran ondo jakiteko, arren eskatzen deusuegu GAIAN honako hau ipinteko: **lehenengo herria** eta **ondoren parrokiaren, ikastetxearen... izena.**

Zuon bankuaren app-an **Bizum bidez 00500** dalakoan egin daitezue ekarpena.

Posta elektronikoz bialduko dogu parrokia guztietara 2023eko sarreraren txostena.

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!**

DOMUND 2024

“Id e invitad a todos al banquete” Mt 22,9”



2024KO URRIAREN 20
20 DE OCTUBRE DE 2024

DOMUND

*Zoazte eta gonbidatu guztiak
jai-otordura
Id e invitad a todos
al banquete*

 #DOMUND
COLABORA EN WWW.DOMUND.ES

 **Domund**
Aita Santuaren Misió Ekintzak
Obras Misionales Pontificias

DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, nº 4 – 2º 48005 BILBAO - Tif. 94 401 36 99

E-mail misiobi@bizkeliza.org

“Id e invitad a todos al banquete”

Estimadas amigas y amigos,

Un año más la campaña del DOMUND se hace presente en el inicio del curso. Esta campaña es una llamada a que todos los cristianos y cristianas nos sintamos responsables en la misión evangelizadora de la Iglesia. Una oportunidad para dar visibilidad a la labor misionera por medio de los testimonios, así como con los materiales de la campaña, tanto en nuestras comunidades cristianas como en los centros educativos. También podemos ofrecer nuestra oración y colaboración económica necesaria para la tarea misionera.

El papa Francisco ha elegido, para la Jornada Mundial de las Misiones de este año, un lema inspirado en la parábola evangélica del banquete nupcial (Mt 22,14) **“Id e invitad a todos al banquete.”**

“Id e invitad”: La misión como un incansable ir e invitar a participar en la misión universal, con nuestro propio testimonio evangélico en todos los ambientes.

“A todos”: A todas y todos debe llegar su invitación, somos enviados a anunciar el Evangelio sobre todo a los últimos y marginados de la sociedad, invitados especiales del rey, “no como quien impone una nueva obligación, sino como quien comparte una alegría, señala un horizonte bello, ofrece un banquete deseable”

“Al banquete”. Dios está preparando una fiesta final para todos sus hijos e hijas, pues a todos quiere ver sentados junto a él, en torno a una misma mesa, disfrutando para siempre de una vida plena.

Al igual que otros años os enviamos los materiales de la campaña: carteles, trípticos, oraciones, ... Podéis disponer de otros materiales en la página web de Obras Misionales Pontificias: www.omp.es y en www.misioak.org

Contaremos con la presencia de jóvenes que darán testimonio de su experiencia misionera de este verano, en los centros educativos y grupos.

Os invitamos una vez más a que aprovechéis este día de reflexión y acción para impulsar la dimensión misionera y así suscitar en nuestras comunidades y grupos nuevas vocaciones misioneras.

Gracias por vuestra implicación en la animación misionera de nuestra diócesis.

Feli Martín
Delegada de Misiones

“Id e invitad a todos al banquete”

Queridos hermanos y hermanas en Cristo:

Al celebrar los 75 años de nuestra Iglesia local, escuchamos la llamada de Dios a mirar más allá de nuestras rutinas. En esta Jornada del Domund 2024, inspirados por el lema "Id e invitad a todos al banquete" (Mt 22,9), nos enfrentamos al desafío de ser misioneros de esperanza en un mundo sediento de amor y justicia.

El Papa nos recuerda que la misión no es una opción, sino una necesidad, expresión de una fe viva y auténtica. La evangelización es tarea de Dios, pero también invitación a reflejar su misericordia. ¿Queremos colaborar con él?

El Domund nos llama a sentirnos responsables de la misión de la Iglesia. Además de apoyar a los misioneros con oración y colaboración económica, podríamos ser testigos vivos del Evangelio en nuestra vida diaria. Cada encuentro puede ser una oportunidad para invitar a otros al banquete del Señor.

Imaginemos la mesa que Dios prepara, donde todos tienen un lugar, sin excluidos ni marginados. Esta visión divina se convierte en nuestra misión hasta que cada ser humano haya recibido la invitación a participar de esa fiesta de amor y comunión. Sin duda queda mucho por hacer.

El Evangelio llama a un banquete donde reina el gozo porque cada invitado es bien acogido y se defiende la dignidad de todos. Cristo se preocupa por los últimos y les asegura un puesto especial. Nos toca ser mensajeros de esa invitación.

Nuestra misión universal requiere compromiso sostenido. No se trata de imponer una obligación más, sino de compartir una alegría, señalar un horizonte valioso, ofrecer un banquete deseable. Cada creyente tiene un papel que jugar en su entorno.

Hermanos y hermanas, no nos conformemos con el mínimo. Abramos nuestros corazones y manos; respondamos con generosidad y valentía. Oremos por nuevas vocaciones misioneras y seamos testigos valientes del amor de Dios.

Que nuestra respuesta sea un "sí" decidido y alegre, capaz de renovar nuestra vida y la de quienes nos rodean. Revistámonos del "traje de fiesta", preparados para el banquete que Dios ha dispuesto para todos los que han creído en sus promesas.

Con afecto y bendición,

✠ Joseba Segura Etxezarraga
Bilboko gotzaina

Monición de entrada

Nos encontramos en una nueva Jornada del Domund. En el Mensaje del papa Francisco para este año, estar "en salida" se define como "ir a los cruces de los caminos e invitar a todos los que encontremos". La eucaristía tiene esa finalidad: invitar, exhortar, **proponer para vivir lo que hemos recibido de Jesús**, el Misionero del Padre.

Sugerencias para la homilía

"Id e invitad". La misión como un incansable ir e invitar a la fiesta del Señor.

Es una Invitación a todos los cristianos y cristianas a participar en la misión universal con nuestro propio testimonio evangélico en todos los ambientes. Una invitación desde la gratuidad, generosidad y la universalidad. A todos y todas se nos da la posibilidad de responder a su llamada e invitación.

"La misión de llevar el Evangelio a toda criatura debe tener necesariamente el mismo estilo de Aquel a quien se anuncia... Siempre con cercanía, compasión y ternura, aspectos que reflejan el modo de ser y de actuar de Dios"

"Al banquete"

Según el relato, Dios está preparando una fiesta final para todos sus hijos e hijas, pues a todos quiere ver sentados junto a él, en torno a una misma mesa, disfrutando para siempre de una vida plena.

Jesús dedica su vida entera a difundir la gran invitación de Dios: «El banquete está preparado. Venid». Este mensaje configura su modo de anunciar a Dios. Jesús Invita y llama. *"El Evangelio llama a todos al banquete donde la comunión con Dios y con los demás, reinan el gozo, el compartir, la justicia y la fraternidad"*.

Esta invitación al banquete esta intrínsecamente vinculada a la invitación a la mesa eucarística, donde el Señor nos alimenta con su Palabra y con su Cuerpo y su Sangre.

"Todos". La misión universal de los discípulos de Cristo y la Iglesia completamente sinodal-misionera.

El papa nos dice que no olvidemos nunca, en nuestras actividades misioneras, que somos enviados a anunciar el Evangelio a todos, y "no como quien impone una nueva obligación, sino como quien comparte una alegría, señala un horizonte bello, ofrece un banquete deseable" **(EG14)**

Los últimos y marginados de la sociedad son los invitados especiales del rey. El banquete permanece abierto a todos y para siempre, porque su amor por cada uno de nosotros es grande e incondicional. Todo hombre y mujer somos destinatarios de la invitación de Dios a participar de su gracia que transforma y salva. Solo se necesita un Sí acogiendo su don divino y gratuito, revistiéndonos de él con un "traje de fiesta", acogiéndolo y permitiéndole que nos transforme (Mt 22,12)

Oración de fieles

En este caminar sinodal de la Iglesia universal, que requiere un compromiso de todos y todas, presentemos al Señor nuestras necesidades, lo mismo que confía un hijo en su padre:

- Por la Iglesia, misionera como Cristo; para que, creando espacios de diálogo, caminando juntos, se ofrezca a los hombres y mujeres de nuestro mundo como servidora de la paz que nos trae el Resucitado. *Roguemos al Señor.*

- Por el papa Francisco, los obispos, sacerdotes y responsables de la pastoral de la Iglesia universal; para que, a ejemplo del Señor, estemos dispuestos a ser servidores y estar cerca de los sufrimientos de nuestra gente. *Roguemos al Señor.*

- Por los misioneros y misioneras para que como María, la primera misionera de la Iglesia, no dilatemos las urgencias que tienen los necesitados y acudamos a la llamada de Jesús, pidiendo por el aumento de las vocaciones misioneras. *Roguemos al Señor.*

- Por quienes no conocen a Jesús; para que renovemos la tarea misionera y, como Iglesia del Señor, vayamos e invitemos a todos a este banquete, a este regalo que Dios hace a cada persona, y le digamos: "¡Te lo vas a perder!". *Roguemos al Señor.*

Escucha al pueblo que se dirige a Ti, como lo hace un padre con sus hijos, y haz que podamos ser fieles a la misión evangelizadora que nos has confiado. Por Jesucristo, nuestro Señor.

Ofertorio

Este **pan**, que se convertirá en tu Cuerpo, queremos que sea el alimento para ir, en tu nombre, hasta los confines de la tierra. Traemos, Señor, el **vino** que se transformará en amor para ponernos al servicio de la evangelización de los pueblos. Esta **campana**, Jesús, nos recuerda que estamos enviados a llamar a todos para la felicidad del Reino, a pesar de la indiferencia o el rechazo.

Monición de la colecta.

La Jornada del Domund que hoy celebramos es universal: se presenta en todos los lugares y en todos se propone la colecta. Unos pueden dar más y otros menos, pero todos podemos compartir. Recordemos que nuestra aportación contribuye para que el Evangelio sea predicado hasta los confines de la tierra. Gracias por vuestra generosidad.

Despedida

La participación en la eucaristía de la jornada del Domund nos impulsa a vivir nuestro ser cristiano desde la perspectiva misionera. Sintámonos misioneros y misioneras, hoy de manera especial, con todos los hombres y mujeres que están haciendo vida el Evangelio siendo testigos del resucitado.

APORTACIÓN ECONÓMICA DE LA DIÓCESIS - OMP

Hay muchas formas de cooperar con las misiones a lo largo del año, pero el Papa pide que las colectas del día del Domund, en todo el mundo, sean para sostener todos los territorios de Misión, en un signo universalidad.

Las Obras Misionales Pontificias garantizan, en nombre del Papa, una distribución equitativa de las ayudas, de manera que todas las iglesias del mundo tengan un mínimo de asistencia. Podéis consultar la información en la MEMORIA 2023 : www.omp.es

Desde la Delegación diocesana de Misiones os agradecemos la tarea que realizáis a lo largo de todo el año a favor de las Obras Misionales Pontificias.

Os indicamos los números de cuenta donde podéis ingresar las colectas y donativos de **Obras Misionales Pontificias**:

KUTXABANK-BBK _____	ES52 2095 0000 76 2000027102
LABORAL KUTXA _____	ES22 3035 0019 90 0190009418
BBVA _____	ES89 0182 1300 11 0014915565

MUY IMPORTANTE: Para poder identificar bien el donativo de cada parroquia, comunidad religiosa, colegio..., **os rogamos** encarecidamente que indiquéis **primero el municipio y a continuación el nombre de la parroquia**, para poder identificar las parroquias que tienen el mismo nombre.

También se puede realizar el donativo por **BIZUM** de vuestro banco al **00500**

Os enviamos por correo electrónico a todas las parroquias el informe con las colectas que se ingresaron el año 2023.

En nombre de todos los misioneros y misioneras y de OMP, **ESKERRIK ASKO!**